

## **SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA**

### **2018ko AZAROAREN 27ko SAIOA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta bost direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zurratik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Estibaliz Olabarri González and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Aitor Unanue Esteban jn., Sí Se Puede Santurtzi udal Taldea.

Endika Garcia Saez jn., Bildu Udal Taldea

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Carlos Moran Arostegi jn.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

### **1. 2018ko IRAILAREN 25eko eta 2018ko URRIAREN 18ko SAIOEN AKTAK ONARTZEA HALA BADAGOKIO**

2018ko irailaren 25eko eta 2018ko urriaren 18ko saioen aktak, ohiko eta ezohikoa hurrenez hurren, alde zurratik igorri direnez, ez dira une horretan irakurri.

Ez denez horrekin lotutako beste parte hartzerik izan, Kontseiluburu jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du.

Bozketan Sí Se Puede Santurtziko kideak abstentzioa agertu du. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluko kideek erabaki dute 2018ko irailaren 25eko saioaren akta onartzea.

Bigarren aktaren bozketan Sí Se Puede Santurtziko kideak abstentzioa agertu du. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluko kideek erabaki dute 2018ko urriaren 18ko saioaren akta onartzea.

## **2. 2018ko IRAILAREN 30era ARTEKO AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERAREN BERRI EMATEA**

Kontseiluburu jaunak irailera arteko, berau barne, aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei aldez aurretik helarazitako dokumentazioarekin bat etorriz.

## **3. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontseiluburu jaunak Autonomiadun Erakundearen jardueri buruzko zenbait konturen berri eman du.

## **4. GALDE ESKEAK**

García Sáez jaunak adierazi du ez duela ulertzen zergatik ez den bere taldeak egindako mozio bat gai-zerrendaren puntu jakin batean sartu eta gaineratu du bertan aintzat hartu ez diren zenbait eskaera daudela.

Unanue Esteban jaunak adierazi du bere ustez SKAko proiektzio, txarteldegi, atezaintza eta eserleku-zaintzaz arduratzen diren langileek udal langileak izan beharko luketela.

Lucena jaunak galdetu du ea kalterik egon den Kresala Aretoko sabaian.

Presidente jaunak erantzun eman die egindako galderi.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan dago:  
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/mjynWJMz8Dqtszs>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamaikak eta hogeita bost direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE  
**ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTE**



